

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Iribas kontseilariak la Caixa-rekin hitzarmen bat izenpetu du baliabide pedagogikoen informatika-programa bat Nafarroaren esku jartzeko

Irakasle, ikasle eta guraso-elkarteei gizarte, kulturako eta maila zientifiko nahiz ingurumeneko gaiei buruzko baliabide pedagogikoak eskaintzen dizkie

Martes, 30 de octubre de 2012

Hezkuntzako kontseilari José Iribas-ek la Caixa fundazioarekin lankidetzako hitzarmen-esparru bat izenpetu du gaur goizean Foru Komunitatean eduCaixa ezartzeko. Finantza-erakundearen gizarte-ekintzak sustatutako hezkuntza-programa da irakasle, ikasle eta guraso-elkarteen esku jartzeko xedearekin gizarte, kulturako eta maila zientifiko nahiz ingurumeneko gaiei buruzko baliabide pedagogikoak www.educaixa.es atariaren bidez.



Iribas kontseilaria, Duran eta Marqueta eduCaixa baliabide didaktikoen erakustaldi batean.

Izenpetze-ekitaldian, finantza-erakundearen ordezkariak honako hauek izan dira: la Caixa fundazioko alboko zuzendari nagusi Elisa Duran eta Nafarroa, Aragoi eta Errioxako erakundeko lurralde-zuzendari Raul Marqueta. Halaber, bertan izan dira Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusi Iñigo Huarte eta Iruñeko San Juan de la Cadena ikastetxe publikoko zuzendari Natividad Iraizoz, hitzarmena izenpetu den ikastetxeko ordezkari gisa.

La Caixa Gizarte Ekintza guztia jasotzen duen programaren barnean baliabide pedagogikoak daude (irudiak, infografiak, bideoak, baliabide elkarreragileak, jokoak...) ikasgelan erabili ahal izateko, bai eta zenbait ekintza ere ikastetxeetatik at egiteko, esaterako: zientzia, kultura eta gizarte-gaiari lotutako erakusketak, eskolako kontzertuak eta bisitak erakundearen mende dauden zentroetara.

Nafarroako 2 eta 18 urte bitarteko 97.000 ikasle baino

gehiagorentzako, irakasleentzako eta guraso-elkarteentzako ekimenak, baliabide didaktikoak eskaintzen ditu honako gai hauekin lotuta: arkitektura, arte plastikoak eta ikus-kultura, astronomia, oinarrizko zientzia, lurraren zientzia, literatura, ingurumena, musika, gizarte-sentsibilizazioa, antzerkia, teknologia eta bizitzarekin.

Hitzarmena izenpetu aurretik erakustaldi praktiko bat egin da. Bertan programak Iruñeko ikastetxeko ikasleei eta irakasleei eskaintzen dizkien hezkuntza-baliabideek nola funtzionatzen duten ezagutzera eman da. Erakustaldia Míriam Llobet eta Míriam Orejón-ek egin dute, biak ala biak Bartzelonako eta Madrilgo CosmoCaixa-ren hezitzaileak.